

NEURRIZKO LAGUNTZA DUTEN ETXEBIZITZAK

Garrantzitsua

Adi: hemen Gizarte Zerbitzuei buruzko informazioa baino ez duzu aurkituko.

Hau da, beste baliabide batzuei buruzko informazioa bilatzen baduzu, hala nola Diru-sarrerak Bermatzeko Errentari (DSBE) buruzkoa, familientzako kontziliazio-laguntzei buruzkoa, adingabeak eskolatzeari buruzkoa edo osasun-zerbitzuetarako sarbideari buruzkoa, Hezkuntza, Familia eta Haurtzaroa, Osakidetza edo Lanbideren atarietara jo behar duzu informazioa jasotzeko.

Webgune honetan jasotzen diren prestazioez gain, udal bakoitzak eta aldundi bakoitzak beste zerbitzu eta prestazio batzuk izan ditzakete Gizarte Zerbitzuen arloan.

Pertsona 18+ buru gaixotasuna > Egoitza edo etxebizitza bat laguntzarekin eskuratzea

Fitxa osoa kontsultatzen ari zara. [Hemen informazio laburtua.](#)

Zertan datza zerbitzu hau?

Laguntzadun etxebizitzak dira, etengabeko gainbegiratzerik behar ez duten pertsonak artatzen dituztenak, gizarteratze-prozesuan daudenak eta, haiek gizarteratzeri eta bizitza normalizatu batera itzultzera bideratutako ibilbide pertsonalizatuaren esparruan, zerbitzutik kanpo eskaintzen diren prestakuntza-jardueretan eta garapen pertsonaleko jardueretan egunean zehar parte hartzen dutenak ([2.4.3 fitxa](#)). Zerbitzu horietan zaintzaileak egoten dira erabiltzaileak dauden orduetan. Etxebizitzek beharrezko laguntza eskaintzen dute gaixotasun mentala duten pertsonen autonomia pertsonala mantentzeko, haien hondar-sintomatologia gutxitzeko, ospitaleratze psikiatrikoak saihesteko eta haien gizarteratzea bultzatzeko. Otordu, ikuztegi, garbiketa eta zaintza zerbitzuak ere izaten dituzte. Aldi baterako, egonaldi luzeko edo egonaldi iraunkorreko zerbitzuak izan daitezke.

Nork jaso dezake zerbitzu hori?

18 urte edo gehiagoko pertsonak, **gaixotasun mental kronikoa edo nahasmendu mental larria diagnostikatu zaienak.**

Zein baldintza zehatz bete behar dira zerbitzua eskatzeko?

- 18 urte edo gehiago. Salbuespen gisa, adingabeak ere sartu ahal izango dira:
 - bere beharrek edo gizarte- eta familia-egoeraren larritasunak hala aholkatzen dutenean;
 - babesgabetasun-arrisku larriko kasuetan, adingabeen babes-zentroetan arreta egokia bermatu ezin dutenean.
- Eskabidea aurkezteko unean Lurralde Historikoko udalerriren batean erroldatuta egotea.

- Gaixotasun mental kroniko edo nahasmendu mental larri eta luzearen diagnostikoa, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuak emana eta gaixotasun horren ondoriozko mendekotasuna onartua.

Zenbat balio du zerbitzuak?

Koordainketaren menpe dagoen zerbitzua, onuradunaren ekonomiaren eta baliabidea erabiltzeko modalitatearen arabera.

Non eska dezaket zerbitzua?

Zure auzo, udalerrri edo eskualdeko **Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetan**.

Zerbitzu honetan interesatuta bazaude edo gehiago jakin nahi baduzu, Gizarte Zerbitzuetan lan egiten duten pertsonekin hitz egin dezakezu. Nola funtzionatzen duen eta zerbitzu hori nola balia dezakezun azalduko dizute. Esaiguzu zure udalerrria eta harremanetarako lekuak eta datuak adieraziko dizkizugu.

Zer arauk ezartzen du zerbitzu hori?

Zorroaren jatorrizko fitxarako sarbidea

Informazio gehiago:

- [Neurrizko laguntza duten etxebizitzak Araban](#)
- [Neurrizko laguntza duten etxebizitzak Bizkaian](#)
- [Neurrizko laguntza duten etxebizitzak Gipuzkoan](#)

[Fitxa laburrera itzuli](#)